

ELGERA



BERBETAN: **IZARO SAIZ LA SALLE IKASTETXEA** KRONIKA: **ZINEMA IKUSEZINA**

MONOGRAFIKOA: **GAZTEOK BERTSOLARITZAZ GOZATZEKO AUKERA**



- 3 ZUZENDARIAREKIN ELKARLANEAN**
- 4 ELKARRIZKETA**
- 6 INKESTA**
- 7 KRONIKA**
- 8 ZORIONAK, ORBEGOZO!**
- 10 LANBIDE HEZIKETA DUALA**
- 12 GAZTEOK BERTSOLARITZAN**
- 14 KOMIKIA**
- 15 KALIGRAMAK**
- 16 ELKARRIZKETA IBONE GOMEZEKIN**
- 18 ALDAKETA KLIMATIKOA**
- 19 MUGIKORTASUN AKTIBOA**
- 22 DENBORAPASAK**
- 25 GURE INGURUKO HIZKUNTZAK**
- 26 BITXIKERIAK**



AURKIBIDEA



ELGERA

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Elorrieta-Errekamari LHII, Eskurtze BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, Ing. Jose Orbegozo HLHI, Kiriikiño Ikastola IPI, La Salle Bilbao HLBIP, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, B02ko Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri Programa, Berbaizu euskara elkarte eta PREST! aldizkaria.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 3730 Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Ikasleok Lander Camarero zuzendariarekin elkarlanean

Etekin Handiko Zikloen ereduaren baitan, enpresa errealekin batera garatzen diren proiektu erreal horietako bat zine zuzendariaren eta Harrobia Lanbide Ikastolako ikasleon elkarlan hau izan da.



Harrobia Lanbide Ikastolako '3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarreragileak' zikloko 2. mailako ikasleok Lander Camarero zuzendari bilbotarraren "The Union" film laburrean parte hartzen ari gara, filmaren efektu berezietan lan eginez Potsprodukzio irakasgaiaren barnean.

Bilbon jaiotako eta egun Jersey City hirian (AEB) kokatzen den "Pressure Filmak" ekoizetxearen bitartez ari da Lander Camarero zuzendaria "The Union" film laburra zuzentzen eta ekoizten. Film labur honek ezkontzetako argazkilarien sindikatuen barruan gertatzen diren trauma bortitzak eta botere-borrokak jorratzen ditu, umore beltzaren bitartez.

Zinemaren mundua beti izan da sormenaren eta lankidetzaren esparrua eta sarritan hezkuntzaren eta praktika profesionalaren arteko

lankidetzaren ematen da. Horren adibide da, hain zuzen ere, Lander Camarero zuzendariak eta Harrobia Lanbide Ikastolako lantaldeak efektu berezien atalean sortutako lankidetzaren berri hau.

Efektu bereziak sortzea diziplina teknikoa eta artistikoa da, pazientzia, sormena eta xehetasunei arreta eskaintzea eskatzen duena. Harrobia Lanbide Ikastolako ikasleok dohai hauek erakutsi ahal izan ditugu, "The Union" film laburreko zuzendariarekin lankidetzaren estuan lan egin ahala, postprodukzio arloan proiektu erreal baten bitartez gogotsu murgilduz.

Ikastolaren eta zuzendariaren arteko lankidetzak ikasleoi gure trebetasunak ingurune erreal batean aplikatzeko aukera paregabea emateaz gain, hezkuntza eta industria zinematografikoaren arteko lotura ere sustatu du, euskal zuzendariarengidari zapean.

“Eskubaloiak nire bizitza baldintzatzen du”

IZARO SAIZ: eskubaloiak iraunkortasunaren eta sakrifizioaren balioa irakatsi dio, ezbeharren aurrean lasai egoten, bere bizitzan helburuak ezartzen, horietan zentratzen eta zorrotza izaten.

Zure jokalaria ibilbidean, espero zenuen noizbait Espainiako Selekzioak deitzea?

Ez, ezinezko ametsa ikusten nuen, horregatik, ez da inoiz nire kirol helburua izan; uste-kabeko deia izan zen, eta ezusteko atsegina.

Zenbat iraun zuen deialdiak? Esperientzia zorrotza izan duzu?

Uztailaren 1etik abuztuaren 15era izan zen. Asteroko kontzentrazioak izan ziren Madril, errendimendu handiko zentroetan, saio bikoitzeko entrenamenduekin, goizez eta arratsaldez, eta atzerrirako bidaiak, Europako Txapelketa-rako prestatzeko lagunarteko jarduerak egiteko.

Zein herrialdetan lehiatu zara Espainiako selekzioaren kontzentrazioetan?

Grezian, Polonian, Frantzian, Hungarian eta Azerbaijanen lehiatu naiz, azken hau Europako txapelketa jokatu genuen herrialdea da.

Zure ibilbide osoan, zein da zure kirol-lorpen handiena? Eta ilusio handiena egin dizuna?

Kirol lorpenik handiena Azerbaijanen ospatu den Espainiako Selekzioarekin Europako Txapelketako txapeldun izatea izan da, baina ilusio handiena egin didana sailkatze sektorea irabaztea izan da, Kukullagarekin Espainiako Txapelketan 8 onenekin aritzeko, eta Euskadiko Selekzioarekin Espainiako txapeldunorde izatea.

Zein taldetan jokatzen duzu gaur egun?

Etxebarriko Kukullaga Klubean jokatzen dut, bai Zilarrezko Ohorezko Mailan, bai Gazte Mailan.

Zenbat denbora ematen duzu astero eskubaloian partiden eta entrenamenduen artean?

Astean hiru egunetan entrenatzen dut, eguneko bi orduz astelehen, asteazken eta ostiraletan, eta horri gehitu egin behar zaio joan-etorria egiteko ordua. Astearte goizetan prestakuntza berezia egiten dut Basque Team Fundazioarekin, eta asteburuetan normalean bi partida jokatzen ditut, gazte eta zilar ligan, Katalunia, Nafarroa, Zaragoza eta Euskal Herri osora joan-etorriak eginez. Hamabost egunean behin Euskadiko selekzioaren deialdia egiten da igande arratsaldeetan. Horrek astean 24-30 ordu inguru eskatzen dizkit, joan-etorrien arabera



Posible da batxiko 2. mailari eta USEri dedikazio horrekin aurre egitea? Zer eskatzen du horrek akademikoki?

Oso zorrotza da, gauetan ikasi behar izaten dut, eta nire ikaskideek egiten dituzten beste gauza askori uko egin behar izaten diet, hala nola arratsalde batean irtetea, parrandan joatea edo asteburu batean bidaian joateko aukera izatea. Baina ahaleginak konpentsatu egiten dit, eskubaloiak kentzen didan denbora gogoz eta ilusioz itzultzen baitit, eta horrek ikasketei aurre egiten laguntzen dit, egin nahi dudan unibertsitate-karreran behar dudan nota lortzeko.

Basque Team-era joaten zara astearte goizero, ikastetxeak erraztasunak eman dizkizu galdutako eskolak berreskuratzeko?

Une oro. Ikastetxeko zuzendaritzak behar izan dudan guztian lagundu dit. Ez dut soilik irakasle guztien laguntza izan galdutako gai guztien zerrenda lortzeko, baizik eta erraztasun guztiak eskaini dizkidate azterketak era bateragarrian egiteko edo zalantzak argitzeko. Badakit hori ez dela ikastetxe guztietan gertatzen, beraz, izugarri eskertzen diot Lasalle ikastetxeari.

Aukera bazenu, zein litzateke 2023-24 denboraldian lortu nahiko zenukeen kirol-lorpena?

Ordena horretan, Euskadiko liga irabazi Kukullagarekin, Espainia mailako 8 talde onenen artean Espainiako txapelketara pasatu eta iaz baino postua hobea lortu; eta gutxienez, aurreko urteko postua errepikatu, Euskadiko selekzioarekin ere bai. Eta kirol-lorpena ez bada ere, eskatzen hasita, medikuntzako karreran sartzeko behar dudan nota lortu.

Zure bizitza pertsonalean aplika dezakezun zer balio irakatsi dizkizu eskubaloiak?

Eskubaloiak iraunkortasunaren eta sakrifizioaren balioa irakatsi dit, ezbeharren aurrean lasai egoten, nire bizitzan helburuak ezartzen eta horietan zentratzen, zorrotza izaten eta talde bateko kide izateko kemena. Baina aitortu behar dut eskubaloian gauzak ondo ateratzen ez zaizkidanean, gainerakoak ez direla ondo ateratzen; beraz, eskubaloiak nire bizitza baldintzatzen du, eta nire aldartea jokoan ditudan sentazioen araberakoa da.



Eskolako neskato bat orain eskubaloian hasiko balitz, zer aholkatuko zenioke?


Goza ditzala une guztiak, etapak oso azkar igarotzen direla, gutxien espero duzunean seniorra zarela, eta kirol bereziki polita dela. Baina ikasteko ere esango nioke; izan ere, zorritzarrez, diziplina horretaz asko gozatzen da, baina hortik ezin da bizi.



Bilboko udalak Lehendakari Agirre etorbidean urteetan egon diren zumarrak moztea erabaki du, eta manifestazioak egin dituzte auzotarrek haserre adierazteko. Kalera atera gara, auzotarrei honen gainean galdetzeko.

EGILEAK: Jare Sarrionandia-Ibarra eta Malen Udaeta

ZER DERITZOKU AGIRRE LEHENDAKARIKO ZUMARRAK MOZTEARI?



AGEDA GAGO

Ez nago batere ados zuhaitzen mozketarekin. Iruditzen zait hirietan berde gitxi dagoela, gero eta grisagoak dira hiriak. Beraz, uste dut oso garrantzitsua dela zuhaitzak edukitzea. Udalak esan du zuhaitzak gaizki daudela, baina ez dakit egia izango ote den.

MARIA BILBAO

Ez nago honekin ados. Gaur egun dagoen kutsadura guztiarekin zuhaitzen garrantzia oso handia dela uste dut. Gainera, zuhaitzei esker beroarengandik hobeto babestu gaitezke.

ESTI LEZEA

Ni ez nago ados. Haien asmoa 130 zuhaitz kentzea eta haien ordez 60 jartzea da. Gainera, ezin da konparatu 40 urteko zuhaitz bat landatu berri dagoen zuhaitz batekin. Udaletxeak dio zuhaitzak gaixorik daudela eta arriskutsuak direla, baina ez da egia. Udalak 130 zuhaitzetatik soilik 4 aztertu ditu, beraz, diotena gezur hutsa da.

JOSE IGNACIO CRESPO

Zuhaitzen mozketak txarto iruditzen zait. Natura natura da eta errespetatu beharko genuke, zuhaitzak moztea ez da natura errespetatzea.

JON BIKARIO

Moztuko dituzten zuhaitzak beste batzuen-gatik ordezkatzen ez badituzte, txarto iruditzen zait. Zuhaitzak garrantzitsuak dira, batez ere eguzkitik babesten gaituztelako. Nire ustez udalak nahi duena hiria politagoa geratzea da, hau da, belar gehiago baina zuhaitz gutxiagorekin.

LUKENE ANTA

Ez zait ondo iruditzen. Zuhaitzek oxigenoa ematen digute eta honek onura asko ematen dizkigu, hortaz, hauek mozten baditugu ez ditugu onura horiek lortuko. Ez dut ulertzen zuhaitzak moztearen arrazoia.



ZINEMA IKUSEZINA: BILBOKO FILM SOZIALEN 15. NAZIOARTEKO ZINEMALDIA

EGILEAK: June Pascual, Mikel Lázaro eta Pau Álvarez

Duela 15 urte, Bilboko film sozialen *Zinema Ikusezina* nazioarteko jaialdia hasi zen. Filmak laburrak dira eta giza eskubideak, garapen iraunkorra, genero berdintasuna eta kulturartekotasunaz hitz egiten dute. *Zinema ikusezina*ren jaialdia 2023ko urriaren 19an hasi zen eta urriaren 26an, Bilbon, bukatu zen.

Zorte handia izan dugu eta guk parte hartzeko gonbidapena jaso dugunez, urriaren 18tik aurrera pelikulak klasean ikusiko ditugu. Jaialdiko pelikula horietariko batzuk hauek izango dira:

- Euskal Herria: *Arnasa*.
- Kolonbia: *Buscadoras*.
- Nazioartea: *Amalur*.
- Senegal: *Constructoras de sueños*.
- Hego Afrika : *Laatste woord*

Zeregin gelako ikasleok institutuko sarrera apaintzea erabaki dugu, eta horretarako sortu ditugun elementuak hauek dira: katu beltza, klaketa, katu-arrastoak, kartela, eta azkenik, hosto eta artilezko girnaldia, zuta-bearen inguruan jartzeko. Beste elementu batzuk ere egitea egokitu zitzaigun, adibidez: zinema-kamera bat,

atezaintzaren apainketa tiketak saltzeko, jaialdiko bi katu, krispetak saltzeko gunea, karteldegia bat egitea, *zinema*-expresen aurtengo kartela, eta puzzle bat aurtengo kartelarekin.

Lan hauek egiten oso ondo pasatu dugu eta oso polit geratu dela uste dugu, ezta? Horra hor gure argazkiak!!!. Espero dugu datorren urtean berriro gonbidapena jasotzea!

Bukatu baino lehen, non gauden azaldu nahi dizugu:

Bilboko Irala auzoan Eskurtze institutua dago eta 40 urte baino gehiago ditu. Institutu honetan 12 urtetik 20 urtera bitarteko ikasleak daude. Eskolatze osoa eskaintzen da:

- DBH (D eredu)
- Gela egonkorra (D eredu)
- Zereginen Gela (ZIG) (A eta D eredu)
- Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak (A, B eta C ereduak)
- Etengabeko eta lanerako prestakuntza.

Baina, zer da Zeregin Gela?

Ba, ZIG hezkuntza-premia bereziak dituzten eta DBHko titulua lortzen ez duten ikasleak lan-munduan sartzeko egokitutako prestakuntza da. Eta lan handia egiten dugu!



ZORIONAK ORBEGOZO!

Eta urte askotarako!

Aurten guretzat ikasturte oso berezia izango da, gure eskolak 50 urte beteko dituelako. 1973ko urriaren 27an inauguratu zuten.

Eskola Peñaskal auzoan kokatuta dago, mendiz inguratuta.

Etxe berriak egiten ari dira eta horregatik laster ume gehiago etorriko dira gure eskolara eta lagun berriak egingo ditugu.

Orbegozo beti izan da auzoko eskola eta hemendik, gure gurasoak, neba-arreba nagusiak, lagunak, etab... pasatu dira. Lehen, hurrez beteta zegoen, baina aurten bakarrik 50 ikasle gara.

Familia handi bat gara denok elkar ezagutzen dugulako. Haserretzen garenean, patioko “lagunen bankuan” arazoak konpontzen ditugu, edo aukera daukagu liburutegi ibiltariko liburuak irakurtzeko.

“Emozio gelara” joan ahal gara lasaitzeko baita.

Urtebetetze hau ospatzeko, kurtsoan zehar hainbeste jarduera antolatuko dira eta gure gurasoak gonbidatu ditugu parte hartzera. Horregatik ama batzuek, haien herriko janari tradizionalak ekartzea denok dastatzeko proposatu dute. Cous-cousa, pita ogia, gozoki tradizionalak eta amaitzeko menta tea probatu ditugu.

Beste guraso batzuk, ordea, haien ohiturak ezagunenak erakutsi dizkigute: txirikordak ilean egin eta eskuak hennaz margotu.

Egun oso polita izan zen. Cous-cousa oso gozo zegoen eta gozoki guztiak berehala jan genituen. Baina jarduera gustokoena “hennaz” eskuak margotzea izan zen. Ikasle eta irakasle guztien partez..... ZORIONAK!



LANBIDE HEZIKETA DUALA, LAN EGINEZ IKASI

Lanbide Heziketa Dualak ikaskuntza prozesuak konbinatzen ditu lantoki eta ikastetxeetan, batzuen eta besteen arteko lankidetzaren bitartez. Ikaskuntza bera ahalbidetuko da, bai eta zenbait gaitasun eskuratzea ere: lanari dagozkion gaitasunak, espezializazioari dagozkionak, eta bestelako zeharkako gaitasun batzuk. LHko ikastetxeko tutoreak heziketa-programa bat adosten du enpresako tutorearekin, eta bien artean kontrolatzen eta ebaluatzen dute enpresan eman beharreko prestakuntza, eza-gutzak sendotzeko eta sakontzeko eta ikasleen gaitasunak eta kualifikazioa bermatzeko. LH Dualak gazteak lan-merkatuan sartzeko bidea erraztea bilatzen du.

Ikasleek benetako lan-egoeretan ikasten dute eta lan-esperientzia handia lortzen dute. LH DuaLa burutzen duten ikasleen enplegarritasuna areagotzen da. %70a dira kontratua lortu duten ikasleak. Hizkuntza teknikoaren ezagutza lortzen da.



Nolako profesionalak lortzen dira Euskadin Txandakako LH Dualaren bitartez? Kualifikazio-maila handiko profesionalak, ikastetxe-enpresa txandakako heziketa jasotakoak, LHko ikastetxetatik programatu eta planifikatuta.

Belaunaldi-erreleboa bermatuko duten espezialistak. Nola lortzen dira espezialista horiek? Haien ikaskuntzak sendotuz, zeharkakotasuna bermatuz, profesional balioanizdunak, prestakuntza-oinarri zabalekoak, enpresa bereko edo beste bateko beste edozein lanpostutara berehala moldatzeko modukoak, prestatuz.

Hauek dira DUALean dabilzaten ikasle batzuen iritziak: "Betidanik, kimika arloa interesgarria iruditzen zitzaidan, eta ziklo honetara sartzea erabaki nuen. Hemen duala egiteko aukera dagoela esan zidatenean oso aukera ona iruditu zitzaidan lan munduan murgiltzen joateko pixkanaka eta ikasi bitartean, diru pixka bat irabazi ahal izateko. Hau horrela, Tecnalía enpresara bideratu ninduten, Azpeitian dagoen enpresara. Honek hainbat klase ordu galdu behar izaten ditudala esan nahi du, eta ordu horiek nire kontura etxean errekuperatu behar ditut. Gogo pixka bat jarrita erraz atera daitekeen zerbait da ordea.


Azpeitiko Tecnalian, orain dela gutxi, laborategi berri bat eraiki dute, egurrezko table-roen ekozpenera bideratuta dagoena. Nire lana, laborategi horretan zentratuta dago. Oraingoz, nire esperientzia Tecnalian oso ona ari da izaten, asko ari naiz ikasten eta lankideak oso atseginak dira nirekin. Ordenagailuko lana egiten badut ere hasierako hillabeteetan, geroago, laborategira joaten utziko ditate eta nire lana hor zentratuko da gehiago. Klasean ikasitako lanean aplikatu dezaket eta alderantziz, beraz formakuntza on bat garatzeko aukera ezin hobea da” adierazi du Garazi Zabaletak.



Ion Etxaniz, Eibarren, Tekniker enpresan dago duala egiten, eta han elektrodo interdigitatuak egiten ditu. Kalitate kontrolaren laborategian, batzuetan beharrezkoak dira elektrodoen elaborazioa kontrolatzeko eta frogatzeko.

“Hemen erabiliko ditut nire ikasketak. Nire esperientzia Teknikerren oso positiboa da. Lan taldeak eta mentoreek asko laguntzen didate eta oso gustora nabil. Elektrodo interdigitatuaren elaborazioari buruz orain dela hilabete batzuk ezer ez nekien, baina nire partez esfortzu handia, lan gogorra eta batez ere asko irakurri eta ikasi ostean, orain horri buruz askoz gehiago dakit. Laborategiko kalitate kontrola lantzeak nire ezagutza handitu du eta lan esperientzia izatea ahalbidetu dit. Eskolan duala egitea lan munduan hasteko eta urbiltzeko bide egokia da.”

Kalitatearen Analisi eta Kontrolerako Laborategiko goi mailako beste ikasle bat, Nicole Alanis da, Gallartako Sun Chemical multinazionalean dago duala egiten. Tinten eta inprimaketa-pigmentuen munduko produktorerik handiena da. Japonian egoitza duen DIC Corporation enpresa-taldeko kidea da Sun Chemical. “Nire lanaren oinarria gure tintetarako erabiltzen ditugun lehengaiak aztertzea da, eta, horrez gain, beste analisi-mota batzuk egiteko disoluzioren bat edo beste egitea. Gure enpresan, tintaz gain, erretxinak ere egiten ditugu, eta laborategian formula berriak egiten dira. Nik formula berri horiek azertu behar ditut, pisu molekularra, azidotasuna, biskositatea, kolorea eta antzeko parametroak ikusteko”.





GAZTEOK BERTSOLARITZAZ GOZATZEKO AUKERA

*Euskal Herrian zehar
bertso jakinak
gure kultura ederra
sustatzen denak! (Maritxu nora zoaz doinua)*

Ziur aski, jada noizbait bertsoak entzun dituzue, baina benetan sakondu duzue hauek daukaten garrantzian euskaldunen bihotzetan? Erritmoa, doinua eta inprobisazioak ezinbestekoak diren disziplina honetan, musikaltasunarekin batera, esaldiak kantuz errezitatzen dira.

Asier izeneko bertsolari oso jatorra San Adrian Institutura etorri da bertsolaritza bultzatzeko asmoz, erakusteko nolakoa den arte hau. Institutu honetako ikasleok oraingoz hiru klase izan ditugu, eta oso nabaria da klasean parte hartzeko gogoia asko handitu dela. Izan ere, Bertsolaritza hain teorikoa ez denez, baina bai ezberdina, klasean normalean parte hartzen ez duten ikasleak ere saiatzen dira errimak egiten, eta oso entretenigarria da denontzat; batez ere ikustea nola jendeak parte hartzen duen honetan gogoz. Oso esperientzia polita izaten ari da, oraindik hiru saio besterik eman ez baditugu ere, Bertsogintza ezagutzen ari gara, eta duen xarmaz gozaten hasi gara.



Hau hasi baino lehen, guztiek gogoia zeukaten klasea galtzeko modu bat zela esaten zutelako, baino zerbait gehiago bihurtu da, dezente handiago, pertsona batzuentzat zer esanahi handia izan dezakeen erakutsi digu, eta zein dibertigarria den gure kulturari, hau da, euskal kulturari buruzko gauza berriak ikastea; Asierrek transmititzen digun erosotasunaz eta segurtasunaz gain.

Mutil alai honekin izandako klaseak guztiz di-bertigarriak izaten ari dira. Bakoitzak bere bu-rua aurkeztu zuen bertsoak eginez eta hasieran bati baino gehiagori lotsa eragin diezaiokeen arren, bertsolaritza irakasle honek izotza oso azkar apurtu zuen eta denok bertsoetan aritzera bultzatu gintuen huts egiteko beldurrik gabe. Lehenengo klasea amaitzeko Asierrek proposatu zigun errima joko bat, non berak esaten zuen hitz bati beste bat bilatu behar genion errima ondo geratzeko. Ariketa honen arrakasta handia izan zen, klaseko isilenek ere jolastea lortu zuelako. Horrela amaitu zen bertsolaritzarekin izandako lehen kontaktua, eta gauza bat ziur esan ahal dut: denok irrikitan geundela hurrengo bertsolaritza klasea iristeko.

Momentuz hiru klase bakarrik izan ditugu bere-ekin, baina ziurtatu ahal dizuet ikasle guztion-tzako denbora hegan egiten igaro dela. Eta orain edozein ikasleri Asierri buruz galdetzen badiozu, ez daukat dudarik erantzungo dizula egiten due-naren adetasunaren eta pasioaren pertsonifika-zioa dela eta berarekin lan egitea gozamina dela. Esan ahal dut DBH 4. mailako ikasleen ahotan es-pero dugula Bertsolaritza irakasle honekin askoz denbora gehiago egotea.

Ibai Fuentes (4DBH-C)



Hau zaila da benetan
aurkitzea oina
"Gu ez gara Lujanbio"
betiko entzuna.


Hau ez dakit egiten
Ze zaila, ai ama!
Bertsoetan aritu
ez zen gure plana.

Klasean elkarrekin
abesti ozena
Ahotsa desagertu.
Hori da problema.


"Bertsoak idatzita"
ideia onena.
Gauza polita dugu
kantatzearena.

Raquel Valle (4DBH-A)






Egilea: Amara de la Varga




Egilea: Mireia Bilbao


KALIGRAMAK




Markel Gutierrez, Jone Olabarria




Malen Amezaga, Irati Arana




Irati Escrivá, Aimar Serrano




Garazi Aboitiz, Naia Eguskitza



Rosemary Silesm,
Paula Bustaman



Garazi Arana, Malen Arbulu



Asier Danz, Ainara Rodrigo

Goizez surfeatu, arratsaldez ikasi

Ibone Gómez surflari gazte bilbotarra goiz hasi zen surf munduan, eta gaur egun profesionala da. Bere egunerokoa ez da erraza, baina, esaera zaharrak dioen legez, ezina ekinez egina.

TESTUA: Irati Arnedo



Nola eta zergatik hasi zinen surfeatzen?

Nire gurasoek betidanik surfa egin izan dute eta ni beraiengatik hasi nintzen. Txikia nintzanean, hondartzan pasatzen nuen denbora gehiena, eta, egun batean uretara sartu nintzen taula batekin. Momentu horretan hasi nintzen surfarekin.

Noiz hasi zinen?

Sei urterekin hasi nintzen surfa egiten eta zazpi urterekin txapelketetan parte hartzen. Nire lehenengo txapelketa 2014an irabazi nuen, zazpi urte nituela.

Zenbat egun entrenatzen duzu astean?

Egunero entrenatzen dut, goizero egiten dut surfa eta astean birritan joaten naiz gimnasiora. Hala ere, saiatzen naiz astean behin deskonektatzen.

Zeintzuk dira zure lorpen handienak?

2022an El Salvadorreko munduko txapelketara joan nintzen Espainiako selekzioarekin eta bosgarren postuan geratu ginen. Urte horretan ere, Europako txapelketan parte hartu genuen eta lehenengoak geratu ginen.

Parte hartu duzun txapelketa guztietatik zein da zure gustukoena?

Esango nuke nire txapelketarik gustukoena Europakoa dela, Espainiako selekzioarekin joan nintzelako eta, gainera, Europa mailan lehenengo postuan geratzea esperientzia izugarria eta ahaztezina izan delako niretzat.

Baduzu ametsen bat etorkizun hurbilean bete daitekeena?

Uste dut Europako txapelduna izatearen ametsa etorkizun hurbilean bete daitekeela.

Zeintzuk dira momentuz zure helburuak?

Momentuz esango nuke datorren urtean berri Mundialera joatea dela nire helburua, eta, noski, emaitza on batekin amaitzea.

Surfa kirol garestia dela esango zenuke?

Bai, surfa kirol garestia da, baina, surflari profesionala zarenean, marka batzuen laguntza jasotzen duzu, eta haiek materialak edota bidaiak ordaintzen dizkizute babesleztaren bidez.

Marka ezberdinen laguntza jasotzen duzu. Nola egiten duzu markekin kontaktuan jartzeko? Zuk egiten duzu ala norbaitek laguntzen zaitu?

Normalean nik egiten dut markekin kontaktuan jartzeko lana, baina badut *community manager* bat prozesu guztiarekin laguntzen nauena.

Zaila da 17 urterekin surfa eta ikasketak batera egitea. Nola moldatzen zara zu?

Apur bat zaila da bai, baina ondo antolatzen bazara, biak egin daitezke. Horregatik erabaki nuen batxilergoa arratsaldean egitea, eta horrela, goizetan entrenatzeko tarte zabalagoa daukat.

Kirolari askok dieta zorrotzak dituzte egoera fisiko onari eusteko. Zure kasuan dietaren bat egiten duzu? Eta zein da zure janaririk gogokoena?

Ez dut dieta konkreririk segitzen, baina denarik jaten saiatzen naiz, eta noski, ahal dudan modu osasuntsuenean egoteko saiakera egiten dut. Eta, nire janaririk gogokoena esango nuke sushia dela. Asko gustatzen zaidan jakia bat da.

Zein da surf egin duzun tokirik urrunena?

Mexikora joan nintzen surfeatzera 2023ko udan, beraz, esango nuke Behe Kalifornia dela surfa egin dudan lekurik urrunena.

Normalean non entrenatzen duzu? Sopelan?

Bai, olatuen eta itsasgoren arabera, baina normalean Sopelan entrenatzen dut edo, bestela, beste hondartza batzuetara mugitzen naiz.

Zein da zure hondartzarik gogokoena? Zergatik?

Pantín, Galizian dagoen hondartza bat da. Eskuineko olatu perfektuak daude eta momentu oso onak pasatu ditut bertan.

Non gustatuko litzaizuke surf egitea?

Indonesian surfeatzea gustatuko litzaidake. Bertan olatu onak eta handiak daude, gainera ur beroarekin, eta arrainak ikus daitezke ura garden-gardena delako.

Zein musika mota edo generoa da gehien gustatzen zaizuna? Zein da zure abestirik gogokoena?

Ingelesean zein euskaraz dagoen musika da normalean gehien gustatzen zaidana. Oraintxe bertan gogoko dudan abesti bat Zoe Weesen "Control" da.

Edozein eliteko kirolarik badu inspiraziorako eredu bat. Zein da zurea?

Carissa Moore da nire inspirazioa surf munduan. Hogeita hamaika urte dituen surflari hawaiiar-estatubatuar profesionala da, eta lau aldiz irabazi du ASP World Tourra.

Emakumea eta kirolaria zara. Nola esango zenuke dagoela surf mundua berdintasunaren arloan?

Txapelketetan diru-kantitate berdina ematen diete neskei zein mutilei, baina marken laguntza jasotzeko ezberdintasunak daude: mutilei laguntza gehiago ematen dizkiete, eta material hobea.

Zeintzuk dira zure helburuak Brasilgo munduko txapelketari begira?

Nire helburua txapelketa irabaztea da, noski, baina badakit hori oso zaila dela, beraz, nire onena emango dut eta ikusiko dugu zein den emaitza.

Bukatzeke, nola ikusten duzu zure burua 5 urte barru?

Gustatuko litzaidake nire bizitza naturaz inguratuta disfrutatzen egotea, baita surf egiten eta txapelketetan parte hartzen jarraitzea ere, eta ahal den neurrian emaitza onak lortzea, jakina.



ALDAKETA KLIMATIKOA

EGILEA: Warda Oumar

Gaur egun, klima-aldaketari aurre egitea da gizakiaren premiarik handiena: batez besteko tenperaturak gora egiten jarraitzen duten heinean eta muturreko gertakari klimatikoak sarriago gertatzen diren heinean, funtsezkoa da horien kausak eta eraginak ulertzea, konponbide eraginkorrak bilatzeko.

Arazoa ulertzeko, aldaketa klimatikoa zer den jakin behar da: arrazoi naturalengatik eta, batez ere, gizakion ekintzen ondorioz lurreko kliman sortzen den desoreka egoerari deritzo.

Azken urteetan klima-aldaketaren prozesua moltipertzeko hainbat neurri hartu badira ere, gaur egun industriaurreko etapako (1850-1900) batez besteko tenperatura baino 1,1 °C handiagoa dela kalkulatu da. Are kezkarriagoa da, ordea, 2020tik 2024ra tenperatura globala industriaurreko maila baino 1,5 °C handiagoa izateko probabilitatea %20 ingurukoa dela. Ondorioak hurrengoak izango dira: kostaldeko uholdeak areagotzea, hondartzen higadura eta ur-horniduren gazitzea eta gizakiari eragingo dioten giza-kianga eta sistema ekologikoengan beste inpaktu batzuk eragingo ditu.

Klima-aldaketa berotegi-efektuko gasen igorpenak eragiten du nagusiki, atmosferan beroa harrapatzen baitute. Iraganean, herrialde kolonizatzaileek sarritan kolonietako baliabide naturalak ustiatzen zituzten: petrolio, mineralak eta egurra barne. Horrek ingurumen-inpaktu handia eragin zuen, erauzketa-praktikak ez baitzeuden araututa ingurumena babesteko. Gainera, petrolioaren eta beste erregai fosilen ustiapena industria garrantzitsua da, hainbat herrialdetako multinazionalak dihardute negozio horretan. Izan ere, erregai horien eskariak gora egin du denboran zehar, eta horrek petrolio gehiago erauzte eta erretzea ekarri du; horrek, aldi berean, klima-aldaketan eragin du, berotegi-efektuko gasen isurketengatik. Horrez gain, nekazaritzak, bereziki abeltzaintzak, metano-isuriak sortzen ditu eta hori oso kaltegarria da lurrarentzat.

Ondorioz, klima-aldaketak hainbat arlotan eragiten dio gure gizarteari. Planetak klima-ereduetan tenperaturak eta aldaketak jasaten dituen heinean, horren ondorioak mundu osoko pertsonen eguneroko bizitzan agertzen dira: lehenik eta behin, berotze globalaren ondorioz, bero-boladak sarriago eta muturreraino eramatea dakar. Gainera, muturreko gertakari klimatikoak, hala nola ekaitzak, uholdeak, lehorteak eta urakanak, ohikoagoak eta larriagoak bihurtu dira azkenaldian. Bestalde, glaziarren urtzeak, uraren hedapen termikoak eta itsasoaren mailaren igoerak kostaldeko komunitateak mehatxatzen ari da. Gainera, muturreko egoera horiek biztanleriaren migrazioa dakar, batez ere, ondorio gehien jasaten dituzten eremuetan: uholdeek, lehorteek edo baliabide faltak eraginda, besteak beste.

Laburbilduz, klima-aldaketa krisi globala da, eta berehalako irtenbidea eskatzen du; izan ere, berotze globalaren ondorioak agerikoak dira, eta mundu osoan nabari da eragina. Hala ere, oraindik badago itxaropena. Nazioarteko lankidetzaren, teknologia garbietetan egindako inbertsioaren eta gure bizimodu-aldaketaren bidez, klima-aldaketa ekidin dezakegu eta, horrela, gure planeta etorkizuneko belaunaldientzat babestu. Hortaz, borroka honek arrakasta izan dezan, funtsezkoak dira erabakiak hartzea eta banakako ekintzak gauzatzea. Gutako bakoitzak zeregina bat du etorkizun iraunkor baten eraikuntzan. Arazo honen irtenbidea ezin dugu alde batera utzi, eta ekintza da aukera bakarra gure etxea, Lurra, babestu nahi badugu.



MUGIKORTASUN AKTIBOA ONGIZATEA BERMATZEKO EZINBESTEKO EREDU JASANGARRIA

CIFP ELORRIETA ERREKA-MARI LHII-KO IKASLEEK BILBOKO BIZIKLETA SAREA ETA EMERGENTZIETAKO LARRIALDIAK EZAGUTUZ EMAN DIOGU HASIERA IKASTURTEARI

EGILEAK: Alvaro Garay, Ariana Ron, Haritz Mujika, Yeray Blazquez eta María Silva

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, helburutzat duena giza garapena bultzatzea gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan.



GJH-ko irudia

Ildo horretan, etorkizuneko Mugikortasunak, Jasangarritasuna, Osasuna eta Segurtasuna sustatu beharko lituzke. Gaur egungo ereduak berrikusi eta eguneratzen ari dira premisa horiei erantzuteko, hau da, mugikortasun aktiboa lehenetsiko duen hierarkia, hiriaren desmotorizazioa, trafikoen baretzea, eta espazio publikoak oinezkoen mesederako berreskuratzea.

Emisio baxuko eremuak

Jakin badakigu azkeneko egunotan hedabideek izpide izan dutela Europa osoan ezartzen ari direla emisio baxuetako zonaldeak eta mugak jartzen ari direla ibilgailu pribatuekin erdiguneraino ez sartzeko. Horrenbestez, eztabaida horretan murgilduta gaudela kontutan hartuz, denok gara kontziente gaur egun arte izan dugun mugikortasun sistema hori mantentzea ezinezkoa dela. Izan ere, legez behartuta gaude 50.000 biztanletik gorako hiriak horrelako neurriak hartzea, baina ez dut lege aldetik bakarrik kontsideratu nahi baizik eta ziur gaude hobetzeko pausu bat izango dela.

"DENOK GARA KONTZIENTE GAUR EGUN ARTE IZAN DUGUN MUGIKORTASUN SISTEMA HORI MANTENTZEA EZINEZKOA DELA"

Hori dela eta, urrian bertan, Bilboko udal gobernuak emisio gutxiko eremua arautuko duen ordenantza proiektua onartu du. Baina aldatzeko beti daukate zailtasunak, horregatik ordenantzak urteak beharko ditu guztiz ezartzeko, 2029. urtearen amaierara arte, hain zuzen.

Mugikortasun aktiboa: gure energia erabili

Dakigunez, Irailaren 16tik 22ra bitartean ospatu da Mugikortasunaren Europako Astea, urtero egiten den ekimena, eta aurtengoan "efizientzia energetikoa" ardatz, garraio jasangarririk eta mugikortasun aktiboan arreta jarrita. Gosari osasungarriaz edo bazkari elikagarriaz gain, mugikortasun aktiboa energia gehigarri gutxi edo bat ere ez behar da hiriguneetan mugitzeko. Baina badira bizikleta eta patinete elektrikoak, bateria kargatzeko energia behar dutenak. Hala ere, auto elektrikoekin alderatuta, izugarri aurrezten da energia.

"MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA, - EFIZIENTZIA ENERGETIKOA- ARDATZ, GARRAIO JASANGARRIRIK ETA MUGIKORTASUN AKTIBOAN ARRETA JARRITA"

Beraz, mugikortasun seguru eta jasangarri bat bermatu behar dugu, garraio bideen arteko gatazkak konpondu eta mugikortasun aktiboa eta osasuntsua lehenetsiko duena, motordun ibilgailuan, bereziki pribatuan, egiten diren joan-etorrien aurrean.

Udalaren ildo estrategikoa: Garraioa, Mugikortasuna eta Irisgarritasuna

Badira urte asko Bilboko Udalak oinezko eta bizikleten mugikortasunaren alde neurri asko hartu dituela, adibidez bizikleta sarea osatuz, jakinda indargune dauzkala, adituek badakigu non hobetu eta zentzu horretan, gizartearen sensibilizazioaren bultzadarekin, aukera ezin hobea daukagu etorkizunean arazo horiei egitura bat emateko eta lehenetsunak ezartzeko mugikortasun proiektu berriak bideratuz.

Ez dago ezer jasangarriago oinez joatea baino, horregatik helburu da oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzea eta horretarako herri azpiegiturak ahalik eta atseginenak eta erraznak izan behar dute eta mugikortasun piramide alderantzikatuaren hierarkia oso garbi edukitzea: oinezkoak, bizikletak, garraio publikoa, zamalana eta azkeneko mailan ibilgailuak egindako mugikortasun pribatua. Hala nola, Bilboko Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana, HMJP-aren lehenetsuna pertsonen bizimoduaren kalitatea hobetzea, eta hiri atseginagoa lortzeko airearen kalitateak eta kutsadura akustikoa murriztea da.

Horregatik 4. Estrategian Txirrindularien Mugikortasuna aipatzen du:


“Erabilera-proportzioari erreparatuta, bizikleta da hazkunde handiena bizi duen desplazatzeko modua. Ibilbideetarako malgutasunari esker eta oinezkoek baino ekintza-radio handiagoa hartzen duela ikusita, osagarri oso egokia da distantzia ertaineko bidaia egiteko. Ingurumenean duen inpaktua oinez ibiltzearen antzekoa da.

4.1. Helburua: Txirrindularien konektagarritasuna hobetzea: Sarea osatzea (bidez zein bidegorriz), bai hiri barruan, bai udal-erri mugakideekin. Txirrindularien zirkulazioaren erosasuna hobetzea.

4.2. Helburua: Bizikleta pribatuak baliatzeari lehentasuna ematea: Aparkalekuak ugaritzea eta hobetzea, bai bizikleta publikoentzat, bai pribatuentzat. Aparkaleku seguruak, estaliak...

“TXIRRINDULARIEN KONEKTAGARRITASUNA HOBETzea”

Txirrindulariek zirkulatzeko bizikleta-bideen neurriak ezartzeari esker, bizikletek zirkulatzeko kale-sare bat sortzen da hirian, bidegorrien sareekin konektatuta eta, hala, garraio-bide horren irisgarritasun hobea lortzen da hirian barrena.



Irudia: Bilboko bizikleta sarea

Bada beste faktore garrantzitsu bat ere, bizikletaren erabilera ugaritzeko: garraio publikoarekin lotzea. Horren ondorioz, terminalik garrantzitsuenek bizikletak aparkatzeko behar beste toki eduki beharko dute, guztia ere bizikletaren eta garraio publikoaren arteko bidaia intermodalak posible egiteko.

“BIZIKLETAREN ERABILERA UGARITZEKO: GARRAIO PUBLIKOAREKIN LOTZEA”

Hori dela eta, bizikleta publikoko zerbitzuetan, azken egunotan pedalei eragiteko sistema lagundua duten bizikletak ipini dira, bizikletak Maileguan uzteko udal Zerbitzua, “Bilbaobizi”, pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak maileguan uzteko zerbitzu publikoa da, kutsatzen ez duen garraio-bide osasungarri eta jasagarri honen erabilera errazteko eta bultzatzeko.

“MUGIKORTASUN SEGURU ETA JASANGARRIRAKO PRESTAKUNTZA”, ZIKLO APROPOSA

Mundu azeleratu honetan ezin dugu ahaztu segurtasuna lehendabizi datorrela. Gidatzeari eta bide-segurtasunari buruzko prestakuntza funtsezkoa da mundua martxan mantentzeko eta mugikortasun jasangarria lortzeko. Etorkizuneko gidariak prestatzea beharrezkoa da.

“GIDATZEARI ETA BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA FUNTSEZKOA DA MUNDUA MARTXAN MANTENTZEKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA LORTZEKO”

Hori dela eta, ikasleak ziklo honekin hain beharrezkoak diren bide-segurtasuneko profesional bihurtuko dira, eta gidariei gidabaimenak lortzeko prestakuntza emateko gai izango dira. Era berean, bide-hezkuntzari, sentsibilizazioari edo merkantzia arrisksutsuei buruzko ikastaroak eta prestakuntzak irakatsi ahal izango dituzte, edo mugikortasun seguru eta jasangarriko planak egiteko aholkularitza egin.

IKASLEEN TESTIGANTZAK

2. mailako ikasleak

Bigarren mailako ikasleek ia zen lehen aldiz hasi zen zikloa hasteko aukera izan zuten, hortaz, orain ikuspuntu zabalagoa daukate ikasketekiko. Alvarok dioenez, aukera aproposa ikusi zuen DGTko kurtso gehiago aterako ez ziren susmoa zegoelako, eta gainera, dirutza kostatzen dute. Era berean, autoeskolako maisua izateko behar diren titulu guztiak bi urteetan (praktikak barne) lortzeko aukerak erakarri zuen ziklora apuntatzera, titulu bakoitzeko hainbat kurtso bereziak atera beharrean.

Hortaz, Alvarok argi baino argiago zuen aukera paregabea zela, bai denbora eta baita diru aldetik ere. Eta gainera, auto-maisuen falta dagoenez, bere akademia propioa izaten ikusten du bere burua. Beste datu garrantzitsu bat aipatu digu: atzeritarren tituluen homologazioa zaila denez, babes-neurria iruditzen zaio.

“POZIK DAGO ASKO BALIO IZAN DIOLAKO BERRIKUNTZA BERE NEGOZIOAN TXERTATZEKO ETA SEGURTASUNA ETA KONFIDANTZA IRABAZI EGIN DUELA BERE BURUARENGAN”

Arianak, ordea, autoeskola baten jabea da jada, bederatzi urte daramatza kudeaketa arduradun moduan sei autoeskola bideratzen, baina falta zitzaion maisua izateko behar diren tituluak; beraz, beharra zuelako egin zuen zikloaren hautua.

Biak pozik daude asko balio izan die-lako alde batetik ikaskuntza eduki zabalak landu eta trafikoko, segurtasun arloan eta jendeari klaseak emateko hainbat tresna eta aukerak eskuratu dituztelako. Horrez gain, Arianak dio berrikuntza bere negozioan txertatzeko eta segurtasuna eta konfiantza irabazi egin duela bere buruarengan ikasitako tresnak eskuratzean. Enpresan maisu gisa laguntzeko aukera ere ikusten du, ikasketetan garatu duen ikuspuntu berri batekin. Eguneroko lanean birziklatzeko aukera paregabea dela uste du, belaunaldi gazteei zerbitzu hobea emateko ikasitako teknologia berrien ekarpenarekin.

1. mailako ikasleak

Lehen mailako ikasleak, aldiz, hasi berriak dira. Haritzek auto-mozioko ziklo bat egin du eta argi dauka etorkizun profesionala: bere aitaren autoeskola eramatea nahi du, eta horretarako mugikortasunari buruz ikasketa gehiago menderatzeko itxaropena du. Espero du klase emateko teknikak ikastea autoeskolan jendearrekin harremana erraza izateko. Bestalde, eskaera bat dauka, hau da, klase praktikoak edukitzea interesgarriagoa iruditzen zaiolako taldean lan egitea eta gustura badago, gehiago ikasiko du.

Yeray irakaslea bada, eta horretan jarraitzeko asmoa dauka. Bere itxaropena da Erakunde publiko edo pribatuei zuzendutako mugikortasun seguru eta jasangarri planetan aholkatzea eta horietan laguntzea. Era berean, ikasgaietatik garrantzitsuen bide-segurtasunerako eta mugikortasunerako irakaskuntzaren esku-hartzea programatzea da, kontuan hartuta zer mota-takoa den eta zer ikasle edo talderi zuzentzen zaion.

EKIMENAK: ERREALITATEA LEHEN PERTSONAN

Mugikortasun aktiboa: bizikletaz ikastetxera

Aipatu bezala, garapen jasangarriaren hiru zutabe, Gizartea, Ekonomia eta Ingurumena dira. Hau da, garapena lortzeko oreka Bidezkoa, Bizigarria eta Bideragarria izan dadin. Edozein kasutan, argi dagoena da mugikortasunak eta espazio publikoaren erabilerak aipatutako hiru dimentsiotan duela eragina eta hiru betebeharrak partekatzen dituztela: jasangarriak izan behar dute euren diseinuan eta garapenean, seguruak euren banaketan eta antolakuntzan, eta osasungarriak euren erabileran eta gozatzean.

Horren haritik, ikasleen egunerokotasunari begira, nahi duguna da mugikortasun eredu berri bat abiatzea eta ikastetxearen jasangarritasunaren ikur bilakatzea. Ikasleen gogoetatik modu eta ideia berriak probatzeko eta horiek in espermentatzeko era apartekoa izan daiteke eta, horri esker, berma dakiokete ikasleen ongizateari. Hau da, komunitatearen ongizatearen alde egin eta aukera berriak gureganatzea da ideia, ikastetxea irisgarriagoa, jasangarriagoa eta atseginagoa eginez.

Alde batetik, kanpotik ikastetxera etortzen diren ibilgailuen eta oinezkoen mugikortasun sistema birmoldatzeko beharra antzematen da, batez ere autoz etortzen direnena. Bestetik, eta irteeran konprobatu dugunez, azpiegiturak hobetzeko beharra dago.


Horregatik, eta epe luzearako, mugikortasun adituak izango diren ikasleen ikuspegitik ikastetxeko joan-etorrien mugikortasun ereduak landu nahi da: ikasleek mugikortasun ikuspegitik daukaten egoera hori aztertu, euren ikastetxera egiten duten ibilbidearen ereduak eta kalitatea zein den inguruan hausnartu, azpiegiturari dagozkien arazoak identifikatu, horiei guztiei irtenbide jasangarriagoa emateko. Egin behar duten diagnostikoko hori ikuspegi teknikoekin eta mugikortasun seguru eta jasangarriaren ikuspegitik proposamen berriei forma emango diogu, hitzaldi batean ondorioak ikastetxe komunitateari helarazi ahal izateko.

Horretarako azaroan bertan egin dugu lehenengo mailako ikasleek bizikleta-irteera Bilboko bizikleta sarea ezagutzeko. Ikastetxetatik abiatuta, garraio publikoa erabiliz Bilbo zentrora heldu eta bizikletak hartuta Bilboko itsasadarraren bi aldeetatik doan bizikleta-sarearen errealitatea ezagutu ahal izan dugu, erdialdea eta alde zaharra Elorrietako ikastetxearekin lotuz. Irteeran, hiriak duen gaitasuna eta mugikortasunaren arloan garatu diren aldaketak aztertu ditugu, ikasleek ikastetxean modu jasangarriagoan heltzeko aukera izan dezaten.


Emergentzietako Koordinazio Zentroa ezagutu

Emergentzietako Koordinazio Zentroan egon gara, bertan 112ko emergentzietako kideekin eta trafikokoekin, eta bakoitzak bere arloa azaldu digu, hau da, dei bat jasotzen duten momentutik nola koordinatzen diren talde ezberdinak, zein baliabide den egokiena hautatuz, anbulantzia, helikopteroa; benetan oso interesgarria.


Ikasleak gehien harritu dituen izan da bertan baliabide fisikorik ez duten arren, (anbulantziak, etab.), agente guztiak daudela: 112ko teknikoak, Osakidetzako emergentziak (erizainak eta medikua), Ertzainak eta Euskadiko trafikoko kudeaketa eramanen dutenak, eta era guzti-takoko egoerak kudeatzen dituzte. Oso erakargarria iruditu zaie bertatik trafikoko pantailetan informazioa klik soil batekin hainbat tokitako aldaketak ikustea.



GURUTZEGRAMA



- (1) Ikusten ditugun tonalitate guztiak.
- (2) Jarduera bat ikusmenaren bidez egin dezakeguna liburuko istorio dibertigarrian sartzeko.
- (3) Material bat askotan erabiltzen duguna kaxan edozein gauzak sartzeko
- (4) Kotxe bat azkar doanean detektatzen duen makina
- (5) Beldur asko ematen digun animalia iletsu bat
- (6) Lore mota bat oso polita dena eta kolore izena daukana
- (7) Arrautzak ematen diguten animalia
- (8) Ikastera joaten garen lekua

**BERTIKALAK**

1. Ugaztun haragijale etxekotua, arrazen arabera, hainbat tamaina edo eite dituena.
2. Arrosaren familiako landarea zurtoin herrestaria eta hosto hozdunak dituena, lore zuriak eta fruitu gorri mamitsuak ematen dituena.
5. Ugaztun haragijale handia, ilea horiagorria duena, Asian eta Afrikan bizi dena.
7. Batez ere bizitzeko edo antzeko zereginetarako egiten den eraikuntza.

HORIZONTALAK

3. Paperezko orri josiz osatutako liburu modukoa, bertan idazteko erabiltzen dena.
4. Igeri egiten den lekua
6. Lehen irakaskuntza irakasten den ikastetxea, gai berezi bat irakasten den ikastetxea.
8. Ugaztun haragijale handi eta basatia, Asia eta Indonesia aldekoa, ilea, eskuarki, gorrixka eta beltzez marratua duena, harrapakin bila gauetz ateratzen dena.
9. Tamainu txikiko hegaztia.
10. Barnean grafitozko hagatxo mehe bat duen zurzko zotz modukoa, idazteko eta marrazteko era-

Etzanda ikusten banauzu, dena naiz,
baina erditik mozten banauzu ez naiz ezer.
Zer naiz?

Zer da ez dagoena ezta barruan
ezta kanpoan
baina etxean beharrezkoa dena?

EGILEA: Ako Saida Infestas

Goizetan nago,
arratsaldeetan desagertzen naiz
eta gauetan berriro agertzen naiz.
Zer naiz?

EGILEA: Sara Segade

Zerbait zoragarria duzu
Leku guztietara eramaten duzu
Ez du ezer pisatzen, baina karga bat izan daiteke
Ezagutzen ez duzun norbaitekin partekatu daiteke
Edo, are gehiago, aldaratzen zaituen norbaiti eman
Besteek zuk baino gehiago erabil dezakete
Zer da?

Emakume batek denbora bat zeraman eztarriko mina izaten,
eta medikuarengana joan zen. Medikuak galdera batzuk egin zizkion,
ahoa irekitzeko esan zion, eztarrian begiratu eta bat-batean arnasa hartu zuen.

Ondoren, garrasi zuen:

- Bihotzekoa!

Larrialdiko kanpaia jo zuen eta haren laguntzaileak berehala sartu zen.
Laguntzailea arduratu zen egoeraz, eta bihotzekoa zela baieztatu zuen.

Oso arazo larria da, eta garestia da errekuperatzea.

Baina emakumea etxera itzuli zen arratsalde hartan, arazorik gabe.

Zer gertatu zen?

EGILEA: Gorka Beaskoetxea

LETRA ZOPA

R	G	M	H	C	N	O	K	E	R	D	Z	E	M
E	T	W	M	Y	U	R	D	U	R	I	V	P	F
E	A	B	E	R	A	T	S	Y	T	X	I	K	I
X	Y	S	X	T	N	E	Z	S	Y	S	Q	A	T
P	K	J	C	U	I	X	C	P	O	P	M	Y	A
D	B	Q	U	G	F	L	A	B	E	L	D	U	R
L	U	K	N	K	H	L	E	P	E	L	G	F	Q
O	H	I	Z	E	B	A	S	J	A	T	O	R	W
E	U	R	I	W	O	H	O	T	Z	J	A	M	Q
J	Y	X	I	G	F	S	J	I	Z	A	R	X	B
N	B	E	R	O	R	I	B	B	L	O	Y	R	E
M	A	I	T	E	M	I	N	D	U	U	L	D	N
A	D	P	O	Z	I	K	U	H	U	R	B	I	L
H	T	X	U	U	G	A	I	X	O	R	I	K	R

aberats
hotz
beldur
euri
izar
jator
izeba
oker

hurbil
gaixorik
maitemindu
pozik
txiki
epel
urduri
bero

GURE INGURUKO HIZKUNTZAK

Hizkuntzak altxorrek dira, eta ahalik eta gehien menperatzea aberasgarria da zentzu guztietan; hizkuntza txikiek mundua handitzen dute, ikuspuntu kultural ezberdinak eskeiniz. Deustuko ikastolako ikasle gehienen familia- hizkuntzak euskara eta gaztelania dira, eta horiek dira bertan entzuten ditugunak. Horietaz gain, baditugu inguruan zenbait hizkuntza, ixilean eta oharkabean pasatzen direnak. Hauetaz gehiago jakin nahiko genuke... Erreportaje honetan aldarrikatu eta txalotu nahi ditugu. Gure eskolako ikasle batzuekin elkarrizketatu ondoren, aurretiaz pentsatzen genituen baino hizkuntza gehiago erabiltzen direla ondoioztatu dugu; hona hemen gure emaitzak.

Lehenengo, Fernando Nikoleili galdetu genion. Kontatu zigun bere etxeko hizkuntza errumaniarra dela bere ama Errumaniakoa delako (Errumania eta Moldoviako hizkuntza nagusia eta ofiziala izateaz gain Bulgarian, Hungarian, Serbian eta Ukranian ere hitz egiten da, eta orain ere badakigu Deustuko ikastolan ere hitz egiten dela) baina bere familiarekin ez du asko erabiltzen. Errumaniera bere amak txikia zenetik irakatsi ziola dakigu. Gaztelania ere etxean ikasi zuela esan digu, ostera, euskara ikastolan ikasi zuen.

Gure hurrengo partaidea 2Ako Carmen Barrero izan zen: bere ama hizkuntza wolofera dela azaldu zigun eta bere etxean eta bere familiarekin wolofa dela gehien erabiltzen duen hizkuntza. Wolof ama hizkuntza da senegaldarren %40entzat, eta bigarrena gehiengoarentzat. Bere familiak irakatsi zion wolofera, txikitatik. Gaztelania ere, etxean ikasi zuen baina euskara ikastolan.

Ondoren, 2Ako Leyre Cespedesi geldetu genion: bere kasuan, Kitxua da gaztelania eta euskaraz gain dakien hizkuntza. 10 milioi hiztun baino gehiagorekin, Kitxua hizkuntza bizia da zazpi herrialdetan: Argentina, Bolivia, Brasil, Kolonbia, Txile, Ekuador eta Peru. Bere senitartekoekin Kitxua eta gaztelera erabiltzen ditu. Bere ahizpak zituen liburu batzuekin eta gurasoen laguntzarekin ikasi zuen Kitxua. Euskara eskolan eta lagunekin ikasi zuen.

3. Cko Joana Uribarrekin hitz egin genuen gero. Joanak portugaleraz hitz egiten dakiela azaldu zigun, bere amak irakatsita. Bere familiarekin gaztelera hitz egiten du, ondorioz, gaztelera txikitatik irakatsi zioten bere etxean, baina bere amarekin eta ahizparekin portugaleraz hitz egiten du. Potugalera gertuko hizkuntza bat dugu, 200 milioi pertsonak hitz egiten dute Portugal, Brasil, Angola, Cabo Verde, Guinea-Bissau, Mozambique, Santo Tomé y Príncipe eta Timor Orientalen. Euskara ikastolan ikasi zuen gehienbat.

DBH 4. Cko Noor Mehani izan zen azkena. Nooren etxeko hizkuntza Arjeriar arabiera da, bere gurasoek irakatsi zioten txikitatik. Arjeriar arabiera Aljeriako jatorrizko arabieraren hizkera da. Aljeriako biztanleen % 97,3k hitz egiten du. Gaztelania eta euskara, ikastolan eta lagunekin ikasi zuen.

Inkesta honekin gure ikastolan dagoen hizkuntza aberastasunari buruz asko ikasi dugu.



BITXIKERIAK

ATSOTITZAK

*Piero Martínez, Uxue Larrea, Hong Xin Li eta Aritz Toquero
(4DBH)*

Gure institutuko Normalkuntza taldeak astero atsotitza, euskara geldigaitza izeneko proiektua abian jarri du. Denok dakigu esamoldeak eta atsotitzak hizkuntzaren gatza eta piperra direla. Izan ere, indarra ematen diote gure diskurtsoari, eta komunikazioari kolore emanda, mezuaren apaingarri bihurtzen dira.

Ikasturte osoan zehar hilabete bakoitzerako 4 edo 5 esaera zahar edo atsotitz landuko ditugu, eguraldia, baserriko bizitza eta euskararekin lotutakoak. Gure institutuko sare sozialetara (X, Instagram, Facebook) igotzen dira eta posta elektronikoko bidez ere heltzen zaizkigu.



Egitasmo honen bidez, asteartero euskarazko esaera zahar edo atsotitz bat jasotzean, euskal ondarea eta kultura bultzatzeko aukera paregabea dugu. Egunerokotasunetik datozen herri-jakinduriako berbak dira. Kontuan hartu behar dugu euskal kulturaren parte direla, elementu tradizionalaz hitz egiten dutelako, nekazaritzaz, eguraldiaz....

Azkenik, atsotitz hauen bidez, gure lexikoa zabaltzen eta euskara hobetzen dugula uste dugu.

IZARTU EUSKARAZ

*Egileak: Ibon Menendez, Pedro Chuve eta Rania Mekkaaoui
(4DBH)*

Rekaldeberri Institutuan martxan jarri berri den egitasmoa da. Proiektu honen helburua da ikasleei euskarazko musika-ekarpenak ezagutaraztea eta sarrera atseginagoa egitea, goizetan musikaz lagunduta.

Gure institutuko sarreran telebista pantaila jarri da eta bertan euskarazko bideoak daude ikusgai eta entzungai (ETS, Gatibu...) sinestezina! Goizeko 08:00etatik 08:15era entzuten ditugu, a ze sarrera goxoa!!!

Eta nola sortu den ideia polit hau galdetuko duzue. Ba, institutuko Euskara Mintegiak sortu du eta, jakina, aukera ematen die ikasleei abesti eta bideo berriak proposatzeko; horrela, gure erreperitorioa aberasten joango gara.

Gure ustez, oso atsegina da goizean institutuan sartzeko, animatu egin behar dugu eta. Eta zer hobeto, musikarekin baino! Musikarekin ikas-tea! Ikasleok musika entzuten dugunean motibatua egiten gara gehiago ikasteko.

Azkenik, abesti bereziak ere izango ditugu: Gabon kantak, hezkidetzeta lelo dituztenak, Korrika edo Euskaraldikoak, Agate deuna...




LORATEGIA

Zauri Museliani, Erik Gutierrez eta Enrique Cortes (4DBH)

Rekaldeberri institutuko lorategia oso aberasgarria da. Alde batetik, lorategi botanikoa dugu; bertan, hainbat landare eta zuhaitz: landare aromatikoa, haritza, urkia, astigarra, limoiondoa, ezkia, lizarra, intxaurondoa... Horiek guztiak geolokalizatuta daude eta Interneten (gure weborrian) daude ikusgai.

Bestetik, baditugu 2 baratze, bata, goiko aldean, jolaslekuaren azpian, eta bestea, sarreraren behealdean. Hori dela eta, Hedatze egitasmoaren barruan, Botanikan eta Euskararen, hainbat lan, proiektu eta jarduera egin daitezke, adibidez, honako hauek: landare eta zuhaitzen txertaketa, tximelesten oasia sortzen laguntzea, baldosa-bidea egitea erdialdeko eremu naturaleko hainbat puntutan, plastikoak biltzea (2030 Agendako proiektu batekin lankidetzan), zuhaitzak eta landareak inausi eta ureztatzea... Urtean zehar, baratzean hainbat landare landatu, zaindu, mimatu eta gozatzeko aukera izaten dugu (letxuga, aza, piperra...).

Honen guztiaren bidez, naturaren gaineko kontzientzia sortzea hartzea zein diziplina irabaztea lortzen dugu.



MODismo berri

Ibai Perez, Rafa Marin eta Marangeli Erazo (4DBH)

Modismoak ezagutzen al dituzu? Ez al dakizu zer diren? Lasai, geuk azalduko dizugu. Izan ere, Rekaldeberri institutuan MODismoberri egitasmoa dugu martxan. Proiektu honen helburua da hilero euskaraz modismo berri baten erabilgarritasuna ikastea, ezaizte eta ikuste. Hau da, modismoen bidez eguneroko bizitzan behar ditugun esapideak eta hizkuntzaren bizitasuna landuko ditugu.

Baina ez pentsa hau kontu mugatua denik, hezkuntza-komunitate osoarentzako proiektua da eta (ikasleentzako, familientzako eta irakasleentzako).

Eta hau nola egiten den jakin nahiko duzu, ezta? Ba, oso erraz, hilaren 3. ostiralean egiten dugu. Horretarako, posta elektronikoa eta sare sozialak erabiltzen dira, Rekaldeberriko hezkuntza-komunitate osora iristeko.



MODismoberri proiektua sare sozialetan sustatzeko, formatu karratuko irudi bat prestatu da, X, facebook eta Instagramerako egokia delako. Gainera, institutuaren logotipoa ere txertatzen da.

Azkenik, gogoratu erabiltzen dugun traola edo hashtag-a: #MODismoBerriak #Rekaldeberri #Euskaraz

GABA BALTZA ESKURTZEN



ELGERA 25